Unibertsitate-eskolako Irakasle Titularrak:

–. Juan Jose Igarza Ugaldea jauna, N.A.N.-zkia 30.562.685, jakintza-arloa: «Ingeniaritza Telematikoa». Saila: Elektronika eta Telekomunikazioak.

–. Alejandro Muñoz Mateos jauna, N.A.N.-zkia 30.678.868, jakintza-arloa: «Ingeniaritza Telematikoa». Saila: Elektronika eta Telekomunikazioak.

–. Cristina Perfecto del Amo andrea, N.A.N.-zkia 44.972.631, jakintza-arloa: «Ingeniaritza Telematikoa». Saila: Elektronika eta Telekomunikazioak.

–. Erramun Landa Mendibe jauna, N.A.N.-zkia 14.942.700, jakintza-arloa: «Pintura». Saila: Pintura.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasleen errektoreordeari hilabeteko epean, erabaki hau argitaratzen denetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian hilabete biko epean, erabaki hau argitaratzen denetik hasita (Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa; 107. artikulua eta hurrengoak).

Leioa, 2003ko abenduaren 17a.

ERREKTOREA.
E.E. (2000-6-14eko
Erabakia)
Irakasleen errektoreordea,
VÍCTOR URRUTIA ABAÍGAR.

Profesores Titulares de Escuela Universitaria:

–. D. Juan José Igarza Ugaldea, D.N.I n.º 30.562.685, en el área de conocimiento: «Ingeniería Telemática». Departamento: Electrónica y Telecomunicaciones.

–. D. Alejandro Muñoz Mateos, D.N.I n.º 30.678.868, en el área de conocimiento: «Ingeniería Telemática». Departamento: Electrónica y Telecomunicaciones.

–. Dña. Cristina Perfecto del Amo, D.N.I. n.º 44.972.631, en el área de conocimiento: «Ingeniería Telemática». Departamento: Electrónica y Telecomunicaciones.

–. D. Erramun Landa Mendibe, D.N.I n.º 14.942.700, en el área de conocimiento: «Pintura». Departamento: Pintura.

La presente Resolución agota la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse, en virtud de lo dispuesto en los artículos 107 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común recurso potestativo de reposición ante el Ilmo. Sr. Vicerrector de Profesorado de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, en el plazo de un mes desde su publicación o interponer recurso Contencioso-Administrativos ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao en el plazo de dos meses desde su publicación.

Leioa, a 17 de diciembre de 2003.

EL RECTOR.
P.D.F. (Resolución de 14-6-2000, «Boletín Oficial del País Vasco» de 10 de julio).
El Vicerrector de Profesorado,
VÍCTOR URRUTIA ABAÍGAR.

# Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-778

EBAZPENA, 2004ko urtarrilaren 15ekoa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat 2003-2004 Garatu planean antolatu diren ikaskuntza-erkidegoei buruzko prestakuntza-jardueren deialdia egiten duena.

2003ko uztailaren 29ko Aginduaren bidez (abuztuaren 25eko EHAA), 2003-2004 Garatu planaren barruan

# Cursos de formación y perfeccionamiento

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-778

RESOLUCIÓN de 15 de enero de 2004, del Director de Innovación Educativa, por la que se convocan actividades de formación sobre las comunidades de aprendizaje, destinadas al profesorado no universitario de la Comunidad Autónoma del País Vasco, dentro del Plan Garatu 2003-2004.

Mediante Orden de 29 de julio de 2003 (BOPV de 25 de agosto) se estableció el procedimiento de convo-

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasleentzako prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroen deialdia egiteko eta parte-hartzaileak hautatzeko prozedura ezarri da. Prestakuntza eta hobekuntzarako ikastaro horiek gainditzen dituzten irakasleentzako diru-laguntzak nola eman behar diren ere arautu da, betiere, ikasturte bakoitzerako deialdiko ebazpenean zehazten den moduan, eta Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak berez dituen eginkizunei ezer kendu gabe (eginkizun horiek urriaren 16ko 222/2001 Dekretuko 16. artikuluan daude zehaztuta, dekretu horretan baitago jasota Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa).

Agindu horren bigarren artikuluak dioenez, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren ardura da ikastaro horien deialdia egitea eta ebazpen bidez ikastaroen zerrenda eta ezaugarriak argitara ematea.

Ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

*1. artikulua.–* Deialdia.

1.– Honako prestakuntza-jardueraren deialdia egin da: Ikaskuntza-erkidegoak. Horretarako bi talde egongo dira, bakoitza 30 plazakoa.

2.– Jardueraren funtsezko ezaugarriak I. ERANSKINEAN jasotakoak dira.

*2. artikulua.–* Parte har dezaketenak.

1.– Deialdi honetan honako hauek parte hartu ahal izango dute: unibertsitateaz kanpokoak izan, jardunean egon eta sail honek aitorturiko ikastetxeetan lan egiten duten irakasleek, Zonaldeko Laguntza Zerbitzuetako langileek eta Hezkuntzako ikuskariek. Berariazko lanbide-heziketako irakasleek ere parte hartu ahal izango dute, urriaren 16ko 222/2001 Dekretuko 16.1.g) artikuluan ezarritakoa betez gero. Dekretu horretan dago jasota Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa, eta horren arabera, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak egin behar ditu hobekuntza- eta gaikuntzaplanak berariazko lanbide-heziketako irakasleentzat.

2.– Gainera, honako baldintza berezi hauek bete beharko dira parte hartu ahal izateko:

a) Ikastetxeko zuzendaritzaren baimena (edo dagokion lurralde-burutzarena, Zonaldeko Hezkuntza Laguntza Zerbitzuen eta Hezkuntza Ikuskaritzaren kasuan).

b) Liberazioa behar duten ikastaroetarako, prestakuntza-ekintzetan hilabetetik gora liberatuta parte hartu ez izana, edo ikasteko baimenik eduki ez izana, ikastaroa egin aurreko hiru urteetan. Ondorio ho-

catoria y selección de participantes para la realización de cursos de formación y perfeccionamiento del profesorado de niveles no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sin perjuicio de las funciones propias de la Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente establecidas en el artículo 16 del Decreto 222/2001, de 16 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, dentro del Plan Garatu 2003-2004, así como la regulación de la concesión de ayudas económicas al profesorado que haya superado los mencionados cursos de formación y perfeccionamiento, que den lugar a la percepción de las mismas, conforme a lo que se establezca en la Resolución de convocatoria de cada curso.

El artículo segundo de la mencionada Orden encomienda al Director de Innovación Educativa la convocatoria de los cursos, haciendo pública mediante Resolución la relación y características de los mismos.

En su virtud,

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Convocatoria.

1.– Convocar la siguiente actividad de formación: Comunidades de aprendizaje, en dos grupos de 30 plazas cada uno.

2.– Las características fundamentales de la actividad son las recogidas en el ANEXO I.

*Artículo 2.–* Aspirantes.

1.– Podrán tomar parte en los cursos objeto de la presente convocatoria los profesores de enseñanzas no universitarias en activo que presten sus servicios en centros reconocidos por este Departamento, el personal de los Servicios Zonales de Apoyo a la Educación y los Inspectores de Educación. La participación del profesorado de la formación profesional específica se adecuará a lo establecido en el artículo 16.1.g) del Decreto 222/2001, de 16 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, en virtud del cual corresponde a la Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente la elaboración de los planes de mejora y cualificación del profesorado de la formación profesional específica.

2.– Además, los aspirantes deberán cumplir los siguientes requisitos específicos:

a) Autorización de la dirección del centro (o de la Jefatura Territorial correspondiente en el caso de los Servicios Zonales de Apoyo a la Educación y de la Inspección de Educación).

b) No haber participado en actividades de formación con liberación superior al mes ni haber tenido licencia de estudios, en los tres años anteriores a la fecha de la celebración del curso, para los cursos que requieran li-

rietarako, IRALEko ikastaroak ez dira kontuan hartuko.

c) Liberazioa behar duen ikastaro batean onartutakoek ezin dute parte hartu liberazioa behar duen beste ikastaro batean.

d) Ikastaro bakoitzeko deialdian jasotako berariazko betekizunak.

*3. artikulua.–* Parte-hartzaileak aukeratzea.

1.– Prozesu honen arabera hautatuko dira parte-hartzaileak ikastaro bakoitzerako:

a) Eskatutako baldintzaren bat betetzen ez duten eskatzaileen eskaerak baztertu egingo dira.

b) Gainerako eskabideak ikastaro bakoitzaren fitxan berariaz ezarritako lehentasunen arabera ordenatuko dira. Lehentasun-gradua 7tik beherakoa dutenek ikastaroan lehentasunez parte hartzeko eskubidea izango dute. Lehentasun-gradu orokorra, lehentasunez parte hartzeko eskubiderik ez dagoela adierazten duena, 7 da. Ondorio horietarako, Garatu 01/02 eta 02/03 jardueretan onartuak izan eta arrazoirik gabe jarduueretan huts egin dutenek 8ko lehentasun-gradua izango dute, eta gainerako eskatzaileei hautapen-irizpideak aplikatu ondoren plazaren bat hutsik duten ikastaroetan bakarrik hartu ahal izango dira kontuan.

c) Lehentasun bakoitzari dagokionez ezarritako baremoak aplikatuko dira (II. ERANSKINA).

d) Baremo horiek aplikatu ondoren, lehentasun bakoitzari dagokionez berdinketaren bat bada, lanean emandako urteen kopuruaren arabera erabakiko da. Berdinketak jarraituz gero, oposizioan lortutako sarbidenotak erabakiko du.

e) Plazaren bat esleitu gabe geratzen bada, epez kanpo aurkeztutako eskaerak onartu ahal izango dira, betiere, eskatutako baldintzak betetzen badituzte. Kasu horretan, lehentasun-irizpide bakarra eskaera aurkezteko eguna izango da. Berdinketarik bada, aurreko idatzzatian adierazitako modu berean jokatuko da.

f) Eskatzailea onartua izan daitekeen plazetatik, eskari-orrian jasotako lehentasun-ordenaren arabera aukeratuko da eskatzaileari esleitu behar zaiona.

2.– Hautaketa-prozesuaren ondoren, honakoa izango da eskatutako ikastaroei dagokienez eskatzaileek izango duten egoera:

a) Onartua: eskatzaileak plaza izango du ikastaroan.

b) Erreserban: eskatzaileak ez du plazarik izango, eskaerak plazak baino ugariagoak izan direlako.

c) Baztertua: eskatzaileak ez ditu deialdian edo ikastaroen fitxetan adierazitako baldintzak bete, edo aldien arteko bateraezintasuna dago.

3.– Eskatzaileak baztertzeko arrazoiak:

a) A: eskabidea behar bezala ez betetzea

b) C: lan-egoera

beración. A estos efectos, no se consideran incluidos los cursos de IRALE.

c) La admisión en un curso que requiera liberación excluye la participación en otro que suponga asimismo liberación.

d) Los que figuren como requisitos específicos en la convocatoria correspondiente a cada uno de los cursos.

*Artículo 3.–* Selección de participantes.

1.– La selección de participantes para cada curso se realizará de acuerdo con el siguiente proceso:

a) Se excluirán las solicitudes de aquellos aspirantes que no reúnan alguno de los requisitos exigidos.

b) Se ordenarán las restantes solicitudes según las prioridades específicas que se indican en la ficha de cada curso. La prioridad inferior a 7 indica la existencia de un derecho preferente a participar en un curso. La prioridad general que indica la no existencia del derecho preferente es 7. A estos efectos, a los solicitantes admitidos a actividades Garatu 01/02 y 02/03 que hubiesen faltado injustificadamente a los mismos, se les aplicará la prioridad 8 y sólo podrán ser tenidos en cuenta en aquellos cursos en los que queden plazas vacantes después de aplicar los criterios de selección al resto de los solicitantes.

c) Dentro de cada prioridad se aplicarán los baremos establecidos (ANEXO II).

d) Si, después de aplicados dichos baremos, existieran casos de empate dentro de cada prioridad, decidirá en último término el número de años de servicio. Si persistiera el empate, decidirá la nota de acceso obtenida en la oposición.

e) En caso de quedar sin adjudicar alguna plaza, las solicitudes presentadas fuera de plazo podrán ser admitidas, siempre que reúnan los requisitos exigidos. En este caso, el único criterio de prioridad será la fecha de presentación de la solicitud. Si hubiera empate, se procederá como en el apartado anterior.

f) La adjudicación de una u otra plaza, de aquellas en las que pudiera ser admitido el solicitante se realizará de acuerdo con el orden de preferencia señalado en la Hoja de Solicitud.

2.– Tras el proceso de selección, la situación de las personas solicitantes respecto a cada uno de los cursos solicitados será una de las siguientes:

a) Admitida: personas con plaza en el curso.

b) Reserva: personas sin plaza en el curso, por exceso de demanda.

c) Excluida: en caso de incumplir los requisitos indicados en la convocatoria o en las fichas de los cursos o por incompatibilidad de cursos.

3.– Causas de exclusión:

a) A: solicitud incompleta

b) C: situación laboral

c) I: aldien bateraezintasuna

d) K: berariazko baldintzaren bat ez betetzea

e) L: ikastaroa ez da egingo

f) H: uko egitea, bidezko arrazoiengatik

g) Z: uko egitea, bidezko arrazoirik gabe

*4. artikulua.–* Eskabideak.

1.– Eskabideak aurkezteko lekuak:

Eskabideak Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari zuzendu behar zaizkio, eta lantokiari dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzako Informazio edo Pedagogi Berrikuntzako unitatera bidali behar dira:

– San Prudencio, 18 Vitoria-Gasteiz Araba

– Gran Vía, 85 Bilbo Bizkaia

– Andía, 13 Donostia-San Sebastián Gipuzkoa

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean adierazitako bulegoetara ere bidal daitezke eskaerak. Izenpea eta zigilua dituzten jatorrizko eskabideak bakarrik onartuko dira.

2.– Eskabideak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea otsailaren 12tik 20ra arte izango da, biak barne. Eskabideak aurkezteko ezarritako bulego horietakoren batean epea bukatu aurretik aurkeztu direla egiaztatu ezin denean, eskaera horiek aintzat hartu ahal izango dira ikastaroetan plaza hutsik bada.

3.– Eskaera-inprimakia:

a) Eskabideak III. ERANSKINEAN dagoen ereduari jarraituz aurkeztuko dira. Eskatzaileak eskaera-orri bakar batean adieraziko ditu eskatu nahi dituen ikastaroak, betiere lehentasunezko hurrenkeraren arabera.

b) Eskatutako ikastaroaren kodea eta ikastaroaren izena ez badatoz bat, kodeak balioko du.

c) Eskaerak ikastetxeko zuzendariaren oniritzia eduki behar du. Oniritziak adierazten du irakasleak ikastetxe horretan diharduela irakasle-lanean eta aurkeztutako lan- eta administrazio-datuak egiazkoak direla (Ikastetxeko Zuzendaritzak egiazta ditzakeen puntuei dagokienez). Zuzendaritzaren oniritziak honakoa adieraziko du: batetik, irakaslearen hutsunea onartzen duela, barne-antolamendurako duen gaitasunean oinarrituta, eta bestetik, ikastetxeko ordezkaritza-organo gorenak edo eskola-kontseiluak badutela horren berri.

4.– Agiri osagarriak:

a) Eskatzaileak ikastaroetan parte hartzeko baldintza diren edo hautaketa-prozesuan lehentasuna lortzeko baliagarri izan daitezkeen ezaugarrietako batzuk betetzen dituela egiaztatzeko eskaera-orriko (1) zutabea bete beharko du, zein lehentasun-gradu esleitu behar zaion esanez.

c) I: incompatibilidad de período

d) K: no cumplimiento de requisito específico

e) L: curso anulado

f) H: renuncia justificada

g) Z: renuncia injustificada

*Artículo 4.–* Solicitudes.

1.– Lugar de presentación:

Las solicitudes, que irán dirigidas al Director de Innovación Educativa, se remitirán a las Unidades de Información o de Renovación Pedagógica de las Delegaciones Territoriales de Educación correspondientes al centro de trabajo:

– San Prudencio, 18 Vitoria-Gasteiz Araba/Alava

– Gran Vía, 85 Bilbao Bizkaia/Vizcaya

– Andía, 13 Donostia-San Sebastián Gipuzkoa/ Guipúzcoa

También podrán remitirse a las dependencias indicadas en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Sólo se admitirán solicitudes originales, debidamente selladas y firmadas.

2.– Plazo de presentación:

El plazo de presentación de solicitudes se extenderá desde el día 12 al 20 de febrero inclusive. Las solicitudes que no puedan acreditar su entrega en cualquiera de las dependencias establecidas antes de terminar dichos plazos se podrán tener en cuenta posteriormente para aquellos cursos en los que queden vacantes.

3.– Impreso de solicitud:

a) El escrito de solicitud será presentado conforme al modelo correspondiente que figura en el ANEXO III. El/la solicitante indicará en una sola hoja de solicitud los cursos que pide, según su orden de preferencia.

b) En caso de discordancia entre el código y el nombre del curso solicitado, prevalecerá el código.

c) La solicitud llevará el visto bueno del director o directora del Centro. Este visto bueno implica el reconocimiento de que el solicitante es docente en activo en dicho Centro y que son ciertos los datos laborales y administrativos aportados (en aquello que pueda ser certificado desde la Dirección del Centro). El visto bueno de la Dirección implicará que el Centro asume la ausencia en base a su capacidad de organización interna y que el Órgano Máximo de Representación del Centro está informado.

4.– Documentación complementaria:

a) Para hacer constar que se reúnen algunas de las características que son requisito para participar en algún curso o que pueden dar prioridad en el proceso de selección, el solicitante rellenará la columna (1) de la Hoja de Solicitud indicando la prioridad que cree debe serle adjudicada.

b) Eskatzaileak baremorako sare pribatuan lanean egindako denbora kontuan har dadin nahi badu, dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko du.

c) Sail honetako langileen datu-basean ez dauden eskatzaileek NANaren kopia aurkeztu beharko dute.

*5. artikulua*.– Parte-hartzaileentzako diru-laguntzak.

1.– Inork prestakuntzako jardueretan parte hartzeko eskatzen duenean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2003ko uztailaren 29ko Aginduaren (abuzturen 25eko EHAA) 5. artikuluan arautako diru-laguntzak ere eskatzen dituela uste izango da. Agindu horren bidez, 2003-2004 Garatu planaren barruan Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasleentzako ikastaroen deialdia egiteko prozedura ezarri da.

2.– Ebazpen honen bidez deituriko prestakuntza-jarduerak gainditzen badituzte irakasleek, gorago adierazitako diru-laguntzak jasoko dituzte, honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aukeratu behar ditu irakasle parte-hartzaileak, baina irakasleek berek eskatu behar dute.

b) Irakasleak prestakuntza-jarduera egitekoa ez den beste herri batean lan egin eta bizi behar du.

c) Dena delako jarduera gainditzeko baldintzak bete behar dira: ikastaro osoa gainditzekoak, edo, ikastaroa luzea bada, ikastaroaren zatiak gainditzekoak.

3.– Aurreko idatz-zatietan ezarritakoak betez gero, diru-laguntza emango da eta ikastaroetako parte-hartzaile onuradunei beraiei ordainduko zaie.

*6. artikulua*.– Ikastaroren bat baliogabetzea.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak ikastaroak baliogabetu ahal izango ditu matrikulazioaren hasierako aldian onar daitezkeen eskatzaileen kopurua nahikoa ez bada, edota Zuzendaritza honi egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik ikastaroa burutzea ezinezkoa gertatzen bada.

*7. artikulua*.– Deialdiaren ebazpena eta onartuei jakinaraztea.

1.– Deialdia Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak ebatziko du, batzorde batek egindako proposamenari jarraiki. Batzorde horretan irakasleen prestakuntzaren zerbitzu-arduraduna edo bere ordezko pertsona bat izango da batzordeburu, eta, horrekin batera, batzordekide izango dira, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak izendatuta, Hezkuntza Saileko funtzionarioak, gutxienez hiru funtzionario eta gehienez ere zortzi.

2.– Ebazpena, deialdiaren behin-behineko zerrendak ondoan dituela, 2004ko otsailaren 26an argitaratuko da, Hezkuntzako lurralde ordezkaritzetan. Bertan eska-

b) Las personas que deseen hacer valer el tiempo de servicio en la red privada, a efectos de baremo, deberán adjuntar la documentación acreditativa correspondiente.

c) Las personas no dadas de alta en la base de datos de personal de este Departamento deberán adjuntar fotocopia del DNI.

*Artículo 5*.– Ayudas económicas a los participantes.

1.– La solicitud para participar en las actividades de formación contendrá implícita la solicitud de concesión de las ayudas económicas que se regulan en el artículo 5 de la Orden de 29 de julio de 2003 (BOPV de 25 de agosto), de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, que establece el procedimiento de la convocatoria de cursos del Plan Garatu 2003-2004 para el profesorado de niveles no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– La superación por parte del profesorado participante de las actividades convocadas por medio de esta resolución supondrá la concesión de las ayudas económicas antes mencionadas siempre que:

a) Los profesores asistentes hayan sido seleccionados por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación para participar en tales actividades, previa solicitud de las mismas.

b) Que se resida y trabaje en una localidad distinta de aquella en la que se realice la actividad.

c) Que se cumplan los requisitos para la calificación de apto, bien del curso o bien de las fases que lo puedan componer en el caso de cursos de larga duración.

3.– Concedida la ayuda económica, conforme a lo establecido en los apartados anteriores, la cuantía asignada será abonada directamente al cursillista beneficiario.

*Artículo 6*.– Posible anulación de algún curso.

El Director de Innovación Educativa podrá anular aquellos cursos para los que no haya un número suficiente de solicitudes no excluidas, dentro del período inicial de matriculación o por ser imposible su realización por causas ajenas a esta Dirección.

*Artículo 7*.– Resolución de la convocatoria y notificación de la admisión.

1.– La convocatoria será resuelta por el Director de Innovación Educativa, a propuesta de una Comisión formada por el Responsable del Servicio de Perfeccionamiento del Profesorado, o persona en quien delegue, que la presidirá, y funcionarios del Departamento designados por el Director de Innovación Educativa, en número mínimo de tres y máximo de ocho.

2.– La Resolución con las listas provisionales de la Convocatoria será publicada el día 26 de febrero de 2004 en las Delegaciones Territoriales de Educación,

tzaileen zerrendak egongo dira ikusgai eta eskatutako ikastaro bakoitzari dagokionez hautaketa-prozesuaren emaitza zein izan den, eskatzaileen gabezia dela-eta zein ikastaro baliogabetu diren eta plaza hutsak zein ikastarotan dauden adieraziko da. Plaza huts horiek ebazpen honetako 3. artikuluko 1.e idatz-zatian adierazitakoari jarraituz eskatu ahal izango dira.

3.– Interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte Pedagogi Berrikuntzako lurralde-burutzetan, 2004ko martxoaren 5era arte, egun hori barne.

4.– Behin betiko zerrenda orokorrak dituzten ebazpenak 2004ko martxoaren 17an argitaratuko dira Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan. Gainera, aldi berean, eskatzaileen ikastetxeetara ere bidaliko da dagokien zerrenda. Bertan adieraziko dira ikastetxe horretako irakasleek egindako eskaerak eta hautaketa-prozesuaren emaitza. Ondorio hauetarako, «eskatzailearen ikastetxea» Langileria Kudeatzeko Zuzendaritzaren datu-basean eskatzailearen azken destino gisa agertzen dena izango da.

5.– Ebazpen horien aurka interesdunek gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, lurralde-ordezkaritzetan jendaurrean jartzen direnetik hasita.

***8. artikulua.***– Parte hartzeko baldintzak.

1.– Ikastaroetako matrikula doakoa izango da ikastaroetan parte hartzen duten irakasleentzat.

2.– Behin betiko zerrendak argitaratu ondoren, ezingo zaio ikastaroari uko egin, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren iritziz ondo arrazoituta dauden kasuetan izan ezik. Uko egiteko jakinarazpena Pedagogi Berrikuntzako dagokion lurralde-burutzara bidali beharko da, uko egite hori justifikatzen duen gertakaria jazo eta berehala. Agiri egokiekin batera aurkezten bada, orduan bakarrik onartuko da uko egitea.

3.– Irakasleek nahitaez egin beharko dituzte ikastaroan programatutako jarduera guztiak, ikastaroko Zuzendaritzak jarduera horietakoren bat egitetik salbuesten ez baditu behintzat.

4.– Onartutako parte-hartzaileren bat ikastaroaren hasieran, aldez aurretik adierazi gabe, agertzen ez bada, ekitaldi horretara joaten den erreserbako zerrendako lehen pertsonak hartuko du haren lekua. Gisa horretan huts egiten dutenei 8 lehentasun-gradua aplikatuko zaie, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolatutako ikastaroetan parte hartzeko eskatzen badute hurrengo bi ikasturteetan (04/05 eta 05/06 ikasturteetan).

5.– Ikastaroek fase batzuk izango dituzte, eta hainbat motatakoak izan daitezke:

a) Ikastaroa egiten den lekuan agertzea eskatzen dutenak:

A: Ordutegiaren barrukoak, liberazio osoa dutenak. Liberazioak irakastegunetan parte-hartzailea ordeztea

donde estarán expuestas las listas de solicitantes, con indicación del resultado del proceso de selección para cada uno de los cursos solicitados, cursos anulados por falta de solicitudes que cumplan los requisitos exigidos y cursos con plazas vacantes, que pueden ser solicitadas de acuerdo con lo expuesto en el artículo 3, apartado 1 e. de esta Resolución.

3.– Los interesados podrán presentar sus reclamaciones ante las Jefaturas Territoriales de Innovación Educativa hasta el día 5 de marzo de 2004 inclusive.

4.– La Resolución con la lista definitiva se hará pública en las Delegaciones Territoriales de Educación el día 17 de marzo de 2004. Simultáneamente se remitirá a los centros en los que hubiera algún solicitante la relación correspondiente, con indicación de cada una de las solicitudes que se han recibido del Profesorado a ellos adscrito y el resultado del proceso de selección. A estos efectos, se considera «Centro del solicitante» aquél que figura como último destino del solicitante en la base de datos de la Dirección de Gestión de Personal.

5.– Contra dicha Resolución los interesados podrán interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Educación, en el plazo de un mes desde su publicación en las Delegaciones Territoriales.

***Artículo 8.***– Condiciones de participación.

1.– La matrícula de estos cursos será gratuita para el profesorado asistente a los mismos.

2.– Una vez publicada las lista definitiva, no se admitirá renuncia al curso, salvo en los casos debidamente justificados, a juicio del Director de Innovación Educativa. La comunicación de la renuncia deberá enviarse a la Jefatura Territorial de Renovación Pedagógica correspondiente, inmediatamente después de que se produzca el hecho que la justifica y sólo será admitida en caso de que sea acompañada por el correspondiente soporte documental.

3.– El profesorado estará obligado a realizar todas las actividades programadas en el curso, a no ser que sea eximido de alguna de ellas por convalidación de la Dirección del mismo.

4.– La no presentación en el momento de inicio del curso, sin previo aviso, implicará la sustitución del participante admitido por el primero de la lista de reserva que esté presente en el acto. Esta ausencia motivará que a tales cursillistas se les aplique la prioridad 8, en caso de solicitar participar en cursos organizados por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación durante los dos cursos siguientes (04/05 y 05/06).

5.– Los cursos constarán de varias fases, de diferentes tipos.

a) Presenciales en el lugar del curso:

A: Dentro del horario lectivo, con liberación total. La liberación implicará la sustitución del participante

dakar. Ordezko langileek ikastaro hauetan plaza izan dezakete, baldintza hauek betetzen badira: 150 ordu baino gutxiagoko ikastaroak, pertsona eta ikasturte bakoitzeko, liberazioa duen jarduera bakarra, eta urte guztiko plaza izatea. Liberazioak, bere irakastorduen arabera, parte-hartzailea ordeztea dakar, honako irizpide hauek aplikatuz:

| Irakastorduak | Ordezpen mota |
|---|---|
| 0-6 ordu | Ordezpenik gabe |
| 7-12 ordu | Lanaldi erdiko ordezpena |
| 12 ordu baino gehiago | Lanaldi osoko ordezpena |

E: Agertzea eskatzen duten fase hedagarriak, mintegi, tutoretza eta abarren gisakoak.

b) Ikastaroa egiten den lekuan agertzea eskatzen ez dutenak:

G: Txosten edo memoria bat egitea, ikastaroa ematen duen erakundeak adierazitakoaren arabera. Lan hori erakunde horri entregatu beharko zaio eta Hezkuntza Sailak ere eskatu ahal izango du.

6.– Ikastaroak egiteko epean, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak finkatutakoak bakarrik izango dira jaiegun.

*9. artikulua.–* Liberazioa duten ikastaroen baldintza bereziak.

1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxeetakoak diren irakasleek liberazioa izango dute beren fitxetan hala adierazten duten ikastaroen A motako faseetan. Fase honetako lanegun bakoitzak bi orduko hiru saio izango ditu (9:00-11:00, 11:30-13:30 eta 15:00-17:00); ordu horiek goizean batu ahal izango dira, parte hartzaile eta emaileek hala erabakitzen badute. Jardunaldia sei eskola-ordukoa izango da betiere, saio-tarteko atsedenaldiak kontuan hartu gabe.

2.– Fase horretan, ordutegiak, bajak, baimenak eta bestelako gorabeherak betetzeko, ikastaroa egiten den lekua bera joko da parte-hartzaileen lantokitzat.

3.– Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren eta ikastaro hauetan parte hartu nahi duten irakasleek beren ikastetxeko zuzendaritzaren baimena izan beharko dute, behar bezala zigilatuta.

4.– Ikastaro hauetan justifikatu gabe huts eginez gero, dagokion diziplinazko espedienteari emango zaio hasiera.

*10. artikulua.–* Ikastaroen jarraipena.

Ikastaro guztien jarraipen eta ebaluazio orokorraz gain, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak adierazi ahal izango du zein ikastarotan egingo den jarraipen edo ebaluazio bereziren bat eta horretarako behar diren jarraibideak emango ditu.

durante los días lectivos. El personal sustituto podrá ocupar plaza en estos cursos, siempre que se cumplan las siguientes condiciones: cursos de menos de 150 horas, una sola actividad con liberación por persona y curso escolar y ocupar plaza para todo el año. La liberación implicará la sustitución del participante en función de su carga lectiva, mediante la aplicación de los siguientes criterios.

| arga lectiva | Tipo de sustitución |
|---|---|
| 0-6 horas | Sin sustitución |
| 7-12 horas | Sustitución a media jornada |
| Más de 12 horas | Sustitución a jornada completa |

E: Fases extensivas presenciales, tipo seminario, tutoría,...

b) No presenciales en el lugar del curso:

G: Elaboración de un informe o memoria, según las indicaciones de la entidad impartidora, que deberá entregarse a la misma y que podrá ser solicitado o solicitada por el Departamento.

6.– Dentro del período de realización de los cursos únicamente tendrán la consideración de días festivos los así declarados por el Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco.

*Artículo 9.–* Condiciones especiales en los cursos con liberación.

1.– En las fases tipo A, será liberado el profesorado de los centros públicos dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación. Cada día lectivo de esta fase constará de tres sesiones de dos horas cada una (9-11, 11.30-13.30 y 15-17), que podrán ser acumuladas durante la mañana, previo acuerdo de los participantes e impartidores. En todo caso, la jornada será de seis horas lectivas, excluyendo descansos entre sesiones.

2.– Durante esta fase, a efectos de cumplimiento de horarios, bajas, permisos y otras incidencias, el lugar de realización del curso tendrá la consideración de centro de trabajo de los participantes.

3.– En el caso de profesorado de centros no dependientes de este Departamento que quiera participar en estos cursos, deberá contar con la autorización de la dirección de su centro, debidamente sellada.

4.– En estos cursos, la inasistencia injustificada dará lugar a la apertura del expediente disciplinario correspondiente.

*Artículo 10.–* Seguimiento de los cursos.

Aparte del seguimiento y evaluación general de cada uno de los cursos, el Director de Innovación Educativa podrá indicar los cursos en los que se realizará un especial seguimiento y evaluación, dictando las instrucciones precisas para ello.

*11. artikulua.*– Aktak eta egiaztagiriak.

1.– Ikastaroa bukatu ondoren, ikastaroaren arduradunak akta bidaliko du Irakasleen Hobekuntzarako Administrazio Atalera. Akta horretan honakoak jasoko dira: parte-hartzaileen zerrenda; parte-hartzaileak gaitzat edo ez gaitzat jotzen diren, aurretiaz jarritako eta erakundeak irakasle parte-hartzaileei jakinarazitako ebaluazio-irizpideen arabera; zenbat egunetan parte hartu duten, eta, hala dagokionean, egiaztagiriak eta diru-laguntzak tramitatzeko behar diren beste datu guztiak.

2.– Erakunde emailearen ardura izango da ikastaroetako parte-hartzaileen bertaratzearen kontrola. Inor ezingo da gaitzat jo jardueraren orduen %90era joan ez bada; horri dagokionez, salbuespen izango da ebazpen honen 8. artikuluko 3. idatz-zatian esandakoa. Halaber, ezingo dira gaitzat jo txosten edo memoria egokia aurkezten ez dutenak, erabaki honen 8. artikuluko 5.b) idatz-zatian adierazitako G motako faseren bat duten ikastaroetan. Jarduera-orduen %10 baino gehiagotan huts egiten dutenak ezgaitzat joko dira, eta ezingo dute ez egiaztagiririk ez diru-laguntzarik jaso. Gainera, euren hutsegitea justifikatu beharko dute. Hori egin ezean, zigortuak izango dira 3. artikuluko 1.b) idatz-zatiak dioen bezala.

3.– Akta itxia izango da. Hori dela-eta, ondoren ezingo da aldatu, akats edo hutsunerik egon ezean, eta betiere aldaketak agiri bidez behar bezala justifikatuta.

4.– Gai diren parte-hartzaileei egiaztagiria bidaliko zaie eta, hala denean, diru-laguntza emango zaiela jakinaraziko zaie. Hori lau hilabeteko epean egingo da, akta Irakasleen Hobekuntzarako Administrazio Atalean jasotzen den egunetik hasita.

5.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legeko 44.1 artikuluan xedaturikoaren arabera, epe hori amaitu eta interesdunari oraindik ez badiote jakinarazi eman diotela egiaztagiria eta/edo dagokion diru-laguntza, halakorik ez zaiola eman ulertu beharko da. Epe hori amaitu ondoren ez da inolako ziurtagiririk emango, aurkeztutako errekurtsoen aldeko erabakiren bat edo epairen bat badenean izan ezik.

6.– Jarduerak gaindituz gero, hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren irakasleen prestakuntzarako eta berriztapenerako jardueren datu-basean erregistratuko da. Interesdunek hori ikusi ahal izango dute indarrean dagoen araudiaren arabera eta prestakuntzarako eta berriztapenerako jardueren ziurtagiria eskatu ahal izango dute.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko urtarrilaren 15a.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria,
KONRADO MUGERTZA URKIDI.

*Artículo 11.*– Actas y certificados.

1.– Terminado el curso, la entidad responsable del mismo remitirá el acta a la Unidad Administrativa de Perfeccionamiento del Profesorado. En dicha acta se reflejará la relación de participantes, si los considera aptos o no aptos, de acuerdo con los criterios de evaluación previamente establecidos y puestos en conocimiento del profesorado asistente por parte de la entidad, días de participación y los datos que sean necesarios para la tramitación de las certificaciones y concesiones de ayudas económicas, si fueran pertinentes.

2.– Es responsabilidad de la entidad impartidora el control de asistencia de los cursillistas. No podrá ser considerado apto ningún participante que no haya asistido al 90% de las horas de la actividad, salvo lo indicado en el artículo 8, apartado 3 de esta Resolución, ni quienes no hayan entregado el informe o memoria correspondiente en los cursos con alguna fase tipo G de las indicadas en el artículo 8, apartado 5 b) de esta Resolución. Los participantes cuya inasistencia supere el 10% del total de las horas de la actividad serán considerados no aptos y no podrán obtener certificación alguna ni se les concederá ayuda económica. Además, deberán justificar su ausencia ya que, si no lo hicieran, serán sancionados, conforme a lo establecido en el artículo 3, apartado 1 b).

3.– El acta tendrá carácter cerrado, no permitiéndose posteriores modificaciones de la misma, salvo error u omisión y, en todo caso, con la justificación documental adecuada.

4.– A los participantes aptos se les emitirá un certificado y se les comunicará en su caso la concesión de ayuda económica en el plazo máximo de cuatro meses desde la recepción del acta en la Unidad Administrativa de Perfeccionamiento del Profesorado.

5.– De conformidad con lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/92, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, si una vez transcurrido el plazo antes mencionado no hubiera sido notificada a la persona interesaba la emisión de la certificación y/o la concesión de las ayudas económicas que fueran pertinentes, se considerará como denegación de las mismas. Pasado este plazo, no se emitirá certificación alguna, excepto Resolución positiva de los recursos presentados o sentencia judicial.

6.– La superación de las actividades dará lugar a su registro en la base de datos de actividades de innovación y formación del profesorado del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, base de datos que podrá ser consultada por los interesados de acuerdo con la normativa vigente y de la que podrán pedir el Certificado de Actividades de Innovación y Formación.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de enero de 2004.

El Director de Innovación Educativa,
KONRADO MUGERTZA URKIDI.

# I. ERANSKINA / ANEXO I

## IKASTAROEN EZAUGARRIAK / *CARACTERÍSTICAS DE LOS CURSOS*

| IKASKUNTZA-ERKIDEGOAK / *COMUNIDADES DE APRENDIZAJE* | Kodea / *Código* | 0320DPR033 |
|---|---|---|

| | |
|---|---|
| ERAKUNDE ARDURADUNA<br>*ENTIDAD RESPONSABLE* | HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA<br>Mª Luisa Jaussi (944121614), Luisa Mª Puertas (944703550) |
| ZUZENDARIA/K-*DIRECTOR/A/S*<br>EMAILEA/K- *IMPARTIDOR/A/ES* | Mª Luisa Jaussi, Luisa Mª Puertas<br>Asesores Berritzegune/Centros de Comunidades/ CREA |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ORDU KOPURUA<br>*Nº DE HORAS* | 45 | POSTU KOPURUA<br>*Nº DE PLAZAS* | 30 | DATAK<br>*FECHAS* | HASIERA / *INICIO*<br>AMAIERA / *FINAL* | 22-03-04<br>26-03-04 |
| HIZKUNTZA<br>*IDIOMA* | C/E | | | HERRIA ETA TOKIA<br>*LOCALIDAD Y LUGAR* | DURANGO<br>HIZKUNTZA ESKOLA | |

| FASEAK<br>*FASES* | ORDUAK<br>*HORAS* | HASIERA<br>*INICIO* | AMAIERA<br>*FINAL* | ORDUTEGIA<br>*HORARIO* | ASTEKO EGUNAK<br>*DIAS SEMANA* | BALDINTZAK<br>*CONDICIONES* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 30 | 22-03-04 | 26-03-04 | 9:00-14:00 | 1-2-3-4-5 | A |
| 2 | 15 | 14-05-04 | 28-05-04 | | | G/E |

BETEKIZUNAK
*REQUISITOS*
Profesorado de Ed. Infantil y Ed. Primaria

LEHENTASUNAK
*PRIORIDADES*
1. 2/3 profesoras/es de Equipos directivo y/o Pedagógicos del mismo centro
2. 2/3 profesoras/es de distintas áreas del mismo centro
3. Profesoras/es con estabilidad en centros de Ed. Primaria

EGITARAUA / *PROGRAMA*
EDUKIAK / *CONTENIDOS*
Objetivos:
– Proporcionar al profesorado elementos de reflexión que le permitan mejorar la respuesta educativa al alumnado de medio desfavorecido y al alumnado en general.
– Proporcionar al profesorado recursos que le permitan mejorar el trabajo en equipo, la colaboración con las familias y la comunicación con el alumnado.
– Conocer la experiencia de Comunidades de Aprendizaje

Contenidos:
– Bases teóricas: Sociedad de la Información, Teoría comunicativa; aprendizaje dialógico, igualdad en la diferencia, enriquecimiento frente a la compensación...
– Principios pedagógicos: Metas compartidas, altas expectativas, participación de las familias y del resto de la comunidad.
– Proceso de transformación de un centro en comunidad de aprendizaje

Metodología:
– Grupos interactivos.
– Experiencias concretas de comunidades de aprendizaje

Fase práctica (15 horas)
1– Tipo de trabajo: elaboración de un trabajo (unidades didácticas, proyecto de innovación o de gestión, realización de una experiencia didáctica o de gestión), realización de prácticas en el aula/centro
2– Tipo de seguimiento: Tutorización a lo largo de la fase. Reunión final para intercambiar experiencias y opiniones. Evaluación del trabajo.

| IKASKUNTZA-ERKIDEGOAK / *COMUNIDADES DE APRENDIZAJE* | Kodea / *Código* | 0320DSC244 |
|---|---|---|

| | |
|---|---|
| ERAKUNDE ARDURADUNA<br>*ENTIDAD RESPONSABLE* | HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA<br>Mª Luisa Jaussi (944760604), Luisa Mª Puertas (944703550) |
| ZUZENDARIA/K-*DIRECTOR/A/S*<br>EMAILEA/K- *IMPARTIDOR/A/ES* | Mª Luisa Jaussi, Luisa Mª Puertas<br>Asesores Berritzegune/Centros de Comunidades/ CREA |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ORDU KOPURUA<br>*Nº DE HORAS* | 45 | POSTU KOPURUA<br>*Nº DE PLAZAS* | 30 | DATAK<br>*FECHAS* | HASIERA / *INICIO*<br>AMAIERA / *FINAL* | 22-03-04<br>26-03-04 |
| HIZKUNTZA<br>*IDIOMA* | C/E | HERRIA ETA TOKIA<br>*LOCALIDAD Y LUGAR* | DURANGO<br>HIZKUNTZA ESKOLA | | | |

| FASEAK<br>*FASES* | ORDUAK<br>*HORAS* | HASIERA<br>*INICIO* | AMAIERA<br>*FINAL* | ORDUTEGIA<br>*HORARIO* | ASTEKO EGUNAK<br>*DIAS SEMANA* | BALDINTZAK<br>*CONDICIONES* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 30 | 22-03-04 | 26-03-04 | 9:00-14:00 | 1-2-3-4-5 | A |
| 2 | 15 | 14-05-04 | 27-05-04 | | | G/E |

BETEKIZUNAK
*REQUISITOS*

Profesorado de Ed. Secundaria

LEHENTASUNAK
*PRIORIDADES*

1. 2/3 profesoras/es de Equipos directivo y/o Pedagógicos del mismo centro
2. 2/3 profesoras/es de distintas áreas del mismo centro
3. Profesoras/es con estabilidad en centros de Ed. Secundaria

EGITARAUA / *PROGRAMA*

EDUKIAK / *CONTENIDOS*

Objetivos:

– Proporcionar al profesorado elementos de reflexión que le permitan mejorar la respuesta educativa al alumnado de medio desfavorecido y al alumnado en general.
– Proporcionar al profesorado recursos que le permitan mejorar el trabajo en equipo, la colaboración con las familias y la comunicación con el alumnado.
– Conocer la experiencia de Comunidades de Aprendizaje

Contenidos:

– Bases teóricas: Sociedad de la Información, Teoría comunicativa; aprendizaje dialógico, igualdad en la diferencia, enriquecimiento frente a la compensación...
– Principios pedagógicos: Metas compartidas, altas expectativas, participación de las familias y del resto de la comunidad.
– Proceso de transformación de un centro en comunidad de aprendizaje

Metodología:

– Grupos interactivos.
– Experiencias concretas de comunidades de aprendizaje

Fase práctica (15 horas)

1- Tipo de trabajo: elaboración de un trabajo (unidades didácticas, proyecto de innovación o de gestión, realización de una experiencia didáctica o de gestión), realización de prácticas en el aula/centro
2- Tipo de seguimiento: Tutorización a lo largo de la fase. Reunión final para intercambiar experiencias y opiniones. Evaluación del trabajo.

II. ERANSKINA

BAREMO OROKORRA

| | |
|---|---|
| A) Administrazio-egoera. | gehienez 6 puntu |
| 1.– Sailaren mendeko ikastetxeetan karrerako funtzionarioa edo | |
| lan-legepeko kontratu mugagabea duena izatea: | 4 puntu |
| 2.– Egonkortasuna duen bitartekoa izatea: | 3 puntu |
| 3.– Ikastetxe pribatuetan lan-legepeko kontratu mugagabea duena izatea: | 2 puntu |
| 4.– Kendu diren unitateetako irakasle izatea: | 2 puntu |
| B) Lan-esperientzia. | gehienez 4 puntu |
| Hezkuntzan lanean emandako urteak 2002ko ekainaren 30 arte (hori barne): | 0,5 puntu urteko,<br>0,042 hilabeteko,<br>0,0014 eguneko. |
| GUZTIRA GEHIENEZ | 10 puntu |

*ANEXO II*

*BAREMO GENERAL*

| | |
|---|---|
| *A) Situación administrativa* | *máx. 6 puntos* |
| *1.– Ser funcionario de carrera o contratado laboral indefinido en Centros dependientes* | |
| *del Departamento:* | *4 puntos* |
| *2.– Interino con estabilidad:* | *3 puntos* |
| *3.– Contrato laboral indefinido en Centros Privados:* | *2 puntos* |
| *4.– Profesorado de unidades suprimidas:* | *2 puntos* |
| *B) Experiencia profesional* | *máx. 4 puntos* |
| *Años de servicio en educación hasta el 30 de junio de 2002 inclusive:* | *0,5 puntos por año,<br>0,042 por mes<br>y 0,0014 por día.* |
| *TOTAL MÁXIMO* | *10 puntos* |

III. ERANSKINA: ESKAERA ORRIA

DATU PERTSONALAK (Honekin batera NANaren fotokopia aurkeztu behar dute Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko langileen datu-basean alta emanda ez daudenek).

NAN.: ________________ 1. Abizena: ______________________ 2. abizena: ______________________ Izena: _________________ Tlfno. 9 _ _ _ _ __ _ _

LAN EDO ADMINISTRAZIO DATUAK

Ikastetxe kodea: 0 1 _ _ _ _ Izena:________________________________________ Helbidea: ____________________________ PK _________________

Herria:_______________________

Zerbitzu-denbora: urteak: ___ , hilabeteak: ____, egunak: ___ .

Kargua:

Mailako / arloko / irakasgaiko ematen dituen orduak:

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Maila / arloa / irakasgaia: | | | | | | |
| Orduak asteko: | | | | | | |

ESKATUTAKO IKASTAROAK: GARATU PLANEKO IKASTAROAK 2002/03

| | Kodea | Izenburua | (1) | (2) |
|---|---|---|---|---|
| 1. | | | | |
| 2. | | | | |
| 3. | | | | |

________________________(e)n, 2002ko, _________________aren _____(e)(a)n

Ikastetxeko zuzendariaren oniritzia (3) Ikastetxearen zigilua Eskatzailearen sinadura

Sinadura

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARI JAUNA.

(1) Ikastaro bakoitzeko fitxan adierazten diren lehentasunen multzoan, eskatzailearen ustez zein taldetan barne hartuta dagoen adierazten duen zenbakia. Hori egiaztatzen duen agiririk bidaltzen ez bada, 7a izango da.

(2) Administrazioak bete beharrekoa.

(3) Oniritzi horrek eskatzailea ikastetxe horretan irakasle-lanean ari dela eta emandako lan- eta administrazio-datuak, bereziki dagokien epigrafean adierazitako zereginak (maila-arloa-irakasgaia eta horien asteko orduak) egiazkoak direla onartzen duela adieraziko du.

# *ANEXO III: HOJA DE SOLICITUD*

*DATOS PERSONALES (Adjuntar fotocopia DNI en caso de personas no dadas de alta en la base de datos de personal del Departamento de Educación, U. e I.).*

*D.N.I.: ________________ 1er apellido: _________________________ 2º apellido: ________________________ Nombre: __________________ Tlfno. 9 _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _*

*DATOS LABORALES O ADMINISTRATIVOS*

*Centro: código: 0 1 _ _ _ _ _ _ _ _ Nombre:________________________________________ Dirección: ___________________________ C.P __________*

*Municipio:_______________________*

*Tiempo de servicio: ___ años, _____ meses, ___ días.*

*Cargo:*

*Horas a la semana que imparte en cada nivel / área / asignatura:*

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *Nivel o área o asignatura:* | | | | | | |
| *Horas / semana:* | | | | | | |

*CURSOS QUE SOLICITA:* *CURSOS PLAN GARATU 2002/03*

| | *Código* | *Título* | *(1)* | *(2)* |
|---|---|---|---|---|
| *1º* | | | | |
| *2º* | | | | |
| *3º* | | | | |

*En ________________________, a ____de ______________ de 2002*

*VºBº del/a Director/a del Centro (3)* *Sello del Centro* *Firma del/a solicitante*

*SR. DIRECTOR DE INNOVACIÓN EDUCATIVA*

*(1) Dentro de los grupos de prioridades indicados en la ficha de cada curso, nº del grupo en que el/la solicitante se considera incluido/a. Si no se adjunta documentación demostrativa de otra, el 7.*

*(2) A cumplimentar por la Administración.*

*(3) Este VºBº implica el reconocimiento de que la persona solicitante es docente en activo en dicho Centro y que son ciertos los datos laborales y administrativos aportados, en especial las tareas (nivel-área-asignatura y horas semanales en cada una de ellas) indicadas en el epígrafe correspondiente.*